



txanela

Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

4

Mila gau eta bat gehiago

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 4. maila)

TXANELA 4:
LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO LAUGARREN UNITATE
DIDAKTIKOAREN GIDAREN ZIRRIBORROA

“MILA GAU ETA BAT GEHIAGO!”

Aurreko unitateetan landutako gaiei jarraipena emanez, hemen duzu 4. unitate didaktikoari dagokion gida. Hona hemen, hasteko, ohar batzuk:

Oharra: Unitate hau lantzerakoan, lehentasunezko helburua ez da ikasleek arabiarrei buruz hainbat eta hainbat gauza ikastea, halaxe ikasiko badituzte ere; gai honen inguruan hizkuntza, plastika eta dramatizazioa lantzeaz gain, inguruneari dagozkion hainbat prozedura (informazioaren trataerari dagozkionak, alegia) lantzea da, grafikoak eta kontzeptu-mapak egitea eta konparatzeko eta erlazionatzeko gaitasunak lantzea.

Unitatearen haria eta helburua: Hauxe izango da: arabiar zibilizazioaren berri izan, hango ohiturak eta kultura ezagutu... eta musulmanek Euskal Herrian izan zuten eragina eta ekarpenen berri izan.

Proiektua: Ipuinen eta olerkien irakurketa dramatikoa egitea.

Urte osorako proiektuak: Hauexek: *Egunerokoa, Hitzberrilandia, Hemen edo han, gure Txanelan!*

Txokoak: *Ipuinen txokoa, Liburutegia, Txoko zuria, Konpositoreen txokoa, Gutunen txokoa, Erranak erran txokoa eta Albisteen txokoa.*

Aukerako irtenaldiak: Musulmanekin edo arabiarrekin zerikusia duten zenbait herritako (Tafalla, Tuter, Iruñea...) erakusketak, ikuskizunak, eraikinak eta abar bisitatu.

ZE HAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubidea, harremanak eta bake hezkuntza.	Jatorri desberdinetako kideak. Beste kulturekiko errespetua: hizkuntzak, janariak, janzkera, musika... Kulturen arteko elkar bizitza. Familia motak. Emigrazioa. Elkartasuna.
--	--

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	“Xerazade” ipuin arabiarra: <i>J. M. Olaizola “Txiliku”-k</i> moldatua Maitasun olerkiak: <i>Joxan Ormazabal</i> “Alfonbra hegalaria” ipuina: <i>J. M. Olaizola “Txiliku</i> “Ali Baba eta 40 lapurrak” ipuin arabiarra: <i>J. M. Olaizola “Txiliku”-k</i> moldatua “Orreaga” ipuina: <i>J. M. Olaizola “Txiliku</i> “Arabia” bertsoak: <i>Mikel Mendizabal</i>. Igarkizunak: <i>J.M. Olaizola “Txiliku”</i> eta <i>Joxan Ormazabal</i> “Ez nahiz ilehoria, eta zer” liburua: <i>Kirmen Uribe eta Mikel Valverde</i>.
Musika eta gorputz- motrizitatea	“Altabizkarko kantua”, tradiziozko abestia: <i>Benito Lertxundi</i> “Hara, ba!” unitateko abestia: <i>Joxan Ormazabal eta Imanol Urbieto</i>.
Ingurumena	Musulmanak Euskal Herrian. Orreagako guduak.

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkartek garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduerak sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduerara zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuaren osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduerak ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektugailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitala jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 4

IKASLEAREN LIBURUA - 4. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	125
22		Arabiar musika	16	138
35		Arabiar arkitektura	26	148
43		Hara ba!	33	155

JARDUEREN ANALISIA

1. Azalaren behaketa eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Beti bezala, azalaren behaketarekin hasiko gara, aurreikuspen estrategiak landu eta haurrak motibatze asmoz. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntz funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazonatuz eta iragartzeari bidea emanez.

–Zer adierazi nahi du izenburuak?

–Izenda itzazu irudian agertzen diren elementuak? Ezagunak al dituzu?

Zerikusirik ba al dute bata bestearekin?

–Zein erlazio dago irudien eta izenburuaren artean?

–Zeri buruzkoa uste duzu izango dela unitate hau? Zergatik?

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

2. Komikia

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 4. eta 5. or.

Komikia irakurtzen hasi aurretik izenburuari erreparatuko diogu, eta komiki horren inguruan elkarrizketa sortuz, aurre-ezagutzak zein diren aztertuko dugu, eta unitate didaktikoak zertan jardungo duen iragartzen saiatu.

–Zer adierazi nahi digu izenburuak? Zer datorkizu burura izenburua irakurtzerakoan?

Ondoren, ikasleek bakarka irakurriko dute komikia, eta, bukatutakoan, elkarrizketa sortuko dugu:

–Lehenengo binetan agertzen den bide txartelean, “Tutera 10 km” jartzen du.

Ba al dakizu non dagoen Tutera? Zein probintzian dago? Inoiz izan al zara han? Zertara joango ote dira Tuterara? Zerikusirik izango du Tuterak gai honekin?

–Zure ustez, zein harreman mota dago komikian agertzen den neska eta Martinen artean?

–Neskak bere etxeko atea irekitzen duenean, makiltxo batzuetatik kea ateratzen da, ba al dakizu zer den hori? Eta zertarako erabiltzen den? Zein jatorri dute? Non eta noiz ikusi dituzu? Gustuko al dituzu?

–Ikusi al dituzu neska horrek daramatzan oinetakoak? Ikusi al duzu inoiz horrelakorik?

–Ba al dakizu zer den kuskusa? Jan al duzu inoiz?

–Neska hau nongoa dela uste duzu zuk?

–Zenbat urte daramatza neska horrek Euskal Herrian? Hamaika urte daramatzala esatean, zer adierazi nahi du? Ezagutzen al duzu egoera hori bera adierazteko erabiltzen den beste euskal esamolderik? Makina bat urte, urte mordoa...

- Nor izango da Martin eta neskarekin agertzen den beste mutil hori? Zein harreman izango ote du beste biekin?
- 8. binetak zer adierazi nahi digu?
- Kleo ametsetan ari da. Zerekin egin du amets? Ezaguna al duzu kriseilutik atera den gizona? Zergatik ez du Kleok ohetik altxatu nahi? Zuri gauza bera gertatzen al zaizu horrelakoetan?
- Esnatu berri dagoela, ametsak gogoan dauzka Kleok, eta izandako amets horiek lagunei kontatzen ari zaizkie. Zuk gogoratzen al duzu, esnatu berritan, zerekin egin duzun amets? Eta tripa betearekin zoazenean ohera, amets gehiago egiteko joera al duzu? Zergatik izango ote da?
- 12. binetan, Kleo hizketan ari den bitartean, Mainerri, Xabierri eta Mei Liri hainbat irudi datozkie burura, zerikusirik ba dute batzuek bestearekin? Eta unitateko gaiarekin?
- Dirurik gabe, opari politak egin daitezkeela uste du Kleok. Egia al da? Zuk egin al duzu inoiz dirurik gabeko oparirik? Nola sentitu zara hori egiterakoan? Nola sentitu dira besteak?
- Erreparatu iezaiozu azkeneko binetari. Zer da gertatu dena? Zeri egiten diote barre?

Kleok dio Martini oparia egiteko ideia bat baduela, zer uste duzu bururatu zaiola Kleori?

3. Aurrezagutzak

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 6. or.

Komikian hitz egindakoa kontuan izanik, eta orrialde honetan (6.a) dauden irudiei erreparatu ondoren, ikasleek, bakarka, arabiarrei buruz dakitena, kontzeptu-mapa baten bidez adierazi beharko dute euren liburuan. Gero, denek elkarpenak kontuan izanik, aurre-ezagutzen kontzeptu-mapa handi bat idatzi, talde handian lan egin eta erabakiak hartuz.

Kontzeptu-mapa hori kartoi mehe batean idatzi, eta, gai osoa landu ostean, ikasitako guztiarekin beste kontzeptu-mapa bat osatu, eta aurrekoarekin konparatu, ikasitakoaz jabetzeko.

Hona hemen aurre-ezagutzak aztertu eta azalera ateratzeko aukerako galdera batzuk:

- Nolakoa da Arabiako lurraldea? Zein landare mota daude? Zein fruta mota jango da bertan? Zein animalia mota daude? Nola dira etxeak? Eta herriak? Eta hiriak? Nola jantzen dira bertako biztanleak? Zein hizkuntzatan hitz egiten dute?...

Kontzeptu-mapa egiteko orduan, gogoratu, gure hizkuntzaren gramatika eta esaldien egituraketa zuzenaren izenean, Txanela proiektuan, *loturak*, letra xehez eta galdera modura idaztea proposatzen dela eta *KONTZEPTUAK* berriz maiuskulaz eta, oraingoz, deklinaturik (deklinatzea eskatzen baldin badute, behintzat).

4. Ipuina: Xerazade

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Talde handian

Materiala: Irakurgaiak, 62., 63., 64. eta 65. or.

Ipuina irakurri aurretik, ipuin horretan agertuko diren hainbat hitz argitzeko elkarriazketara sortuko dugu taldean.

–Ba al dakizue non dagoen Bagdag? Ba al dakizue zer den bisir bat? Eta morroi bat? ...?

Ondoren, ikasleek ipuina bakarka irakurriko dute. Gero, elkarriazketara sortuko dugu ipuinaren inguruan.

–Ulertu al duzue ipuina? Nork kontatuko dit zer den ipuinean gertatzen dena?

Nahi izanez gero, ikasleren bati esan dakioke laburki kontatzeko ipuinean irakurritakoa. Modu horretan ikasle horren ulermenaz jabetzeaz gain, ahozko adierazpena behatzeko ere aukera izan dezakezue.

–Zer iritzi diozue erregearen emazteak duen jarrerari? Ba al dakizue arabiarrek emazte bat baino gehiago izan dezaketela; eta emazteak, berriz, senar bakarra? Aurretik esandako iritziari eusten diozue hori jakin ostean?

–Gertatu dena berari zuzenean ez dagokion kontua izanik ere, erregearen anaiak ondo jokatu al du erregea jakinaren gainean jartzean?

–Zergatik hiltzen ditu erregeak hainbeste emakume? Horrek konponduko ote du berari gertatu zaiona? Orduan, zergatik jokatuko du modu horretan, zer adierazi nahi du horrekin; zer erakutsi nahi die besteei edo bere buruari? Zure ustez, nola jokatu beharko luke?

–Xerazadek ipuin-kontalari bikaina izateagatik salbatu zuen bere burua, eta baita atzetik etor zitezkeen beste emakume batzuen ere. Berak bazekien ipuin-kontalari bikaina zela, eta plan bat martxan jarri zuen; hala ere, bere burua arriskuan jarri zuen. Zure ustez, ondo jokatu al zuen? Zergatik? Zuk gauza bera egingo al zenuke? Zergatik?

–Xerazade ipuin-kontalaria da. Zuk gustuko al dituzu ipuin-kontalariak? Inoiz kontatu al diozu ipuinen bat norbaiti? Eta irakurri? Gustatuko litzaizuke ipuin-kontalari edo ozeneko ipuin-irakurlea izatea? Zergatik?

Azken galdera hori aitzakia hartuz, proiektuaren aurkezpeneko orrialdea irakurri.

5. Proiektuaren aurkezpena: Irakurketa dramatikoa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Liburua, 7. or.

Unitate honetan, proiektua ikuskizun bat prestatzea izango da, ipuin eta poesia batzuen irakurketa dramatikoa egitea, alegia. Beraz, proiektua aurkezten duen orrialdea irakurriko dugu taldean, proiektuaz jabetzeko, eta proiektu hori gauzatzeko kontuan hartu beharreko urratsak zein diren jakiteko. Hala ere, momentuz, ez dugu inolako erabakirik hartuko, unitatean zehar hainbat atal landu ondoren, baizik, atal horietan

aurkeztutakoa ikustean eta aztertzean proiektuan sartuko ditugun gauzak zein neurritan eta nola txerta ditzakegun balioesten joango baikara.

Bestetik, argitu nahi genuke gai honekin zerikusia duten hainbat ipuin aurkezten bazaizkizue ere irakurgaietan, ez duela horrek esan nahi horiek derrigorrez erabili behar direnik; zuen iritzien arabera egin dezakezu proiektuko irakurketa dramatiko edo dramatizazioa. Beste era batera esanda, irakurgai horiekin trebatu daitezke ikasleak irakurketa dramatiko egiteko, baina, gero, zuen esku geratzen da, horien irakurketa egitea edota egokiago edo gustukoago dituzuen beste ipuin eta olerkien irakurketa prestatzea.

6. Ortografia lantzen: puntuazio marken irakurketa errazten digute

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian - Talde txikian

Materiala: Lan koadernoak, 4., 5., 6., 7., eta 8. or. eta CDR-a

Denbora tartetxo bat emango diegu ikasleei, lan-koadernoko 4. orrialdea irakur dezaten eta jarduera bakarka egin. Gero, egindako lana taldea handian aurkeztu eta elkarren artean aztertu ondoren, testua intonazio egokiz irakurri. Ondoren, talde handian oraindik ere, puntuazio markari buruzko orrialdeak irakurri, zalantzak argitu eta jarduerak osatu. Gogoan izan arau ortografiko horiek ez direla ikasleei buruz ikasgarazteko, behar duten guztietan kontsulta egin eta erabiltzeko baizik; beraz, fotokopiatu, plastifikatu eta edonoz erabiltzeko era egokian kokatu, orain arte landutako puntuazio-marken ondoan.

Horren guztiaren ondoren, Xerazaderen ipuina talde handian aztertu, pertsonaiei eta narratzaileari dagozkien zatiak identifikatu, puntuazio markak behatu eta interpretatu...

Bukatzeko, talde txikietan, eta pertsonaien banaketa egin ondoren, berriz irakurri intonazioa zainduz. Irakaslea taldeen artean ibliko da ikasleen irakurketa behatzen, eta, egoki ikusiz gero, aholkuren bat edo beste ematen.

Puntuazio markak lantzeko hainbat jarduera aurkituko dituzue CDRan.

7. Olerkien irakurketa dramatikoa

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Talde handian - Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak, 66., 67. eta 68. or.

Poesia baten irakurketa dramatikoa era egokian eta modu zuzenean egiten denean, entzulegoaren sentikortasuna piztu eta haren irudimena suspertzea lortzen da. Hori izango da jarduera honetan ikasleei jakinarazi behar dieguna, eta hori da, hain zuzen, euren irakurketa dramatikoarekin entzulegoarengan lortzen saiatu behar dutena. Eta horregatik, poesia bat irakurtzerakoan, hainbat ariketa egin behar ditugu alde aurretik: behin baino gehiagotan norbere baitan irakurri, esaten ari garena ondo ulertu, irakurritakoari buruz hausnartu, ozenki irakurri... Azken batean, irakurtzean norberarengan sortutako sentimenduak besteei transmititzeko bide edo bitarteko egokiak erabili: doinu egokia, intonazioa...

Beraz, aipatu bezala, ikasleek testua behin baino gehiagotan irakurri beharko dutenez, diotena ulertuz eta hausnartuz esango diegu olerkia etxean lasai irakur dezatela. Etxean egindako lan horren ondoren, olerkiak era dramatikoan nola irakurtzen diren landuko dugu, irakasleak eskainitako laguntzarekin. Horretarako, lehenengo irakasleak irakurriko die ikasleei irakurgaietako olerki bat, eta olerki horren hainbat

bertsio egiten saiatuko da, doinu, intonazio eta abar aldatuz, edo konbinatuz. Modu horretan ikasleak hainbat gauzaz konturatuko dira:

- Poesia beraren irakurketa bakar bat baino gehiago egin daiteke.
- Intonazioak olerkiko esaldi edota esaldiko hitz jakin batean jarrazten du arreta, hitz esaldi edo ekintza hori nabarmenduz.
- Hainbat irakurketa motak hainbat sentimendu mota loratzen dituzte entzulegoarengan.
- Intentzioak garrantzia handia duela intonazio eta doinua definitzeko orduan.

Irakasleak, irakurketa horien ondoren, elkarriketa sortuko du ikasleean artean, eta olerkiaren edukiaz (gaia, aipatzen diren ideiak, erabiltzen diren hitzak edo errekurtsioak...) mintzatzeaz gain, irakurketa dramatikoaz ere hitz egiteko bidea jarriko du (doinua, bolumena, etenak, erritmoa...).

Gainontzeko olerkien irakurketa dramatikoan trebatzeko, ikasleak hirunaka jarri daitezke eta lanari ekin.

8. Olerkiak sortzen

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka

Materiala: Lan koadernoak, 9. eta 10. or.

Unitateko proiekturako hainbat ipuin eta olerki irakurri beharko dituzte ikasleek, eta baita haien irakurketan trebatu ere. Olerki horien artean, eurak asmatutakoak irakurtzera bultzatu nahi ditugu ikasleak. Irudimena erabiliz, eta lan-koadernoan olerkiak osatzeko dauden hainbat eredu aztertuz jar ditzakegu lanean. Irakurri ereduok talde handian, eta hitz egin horiei buruz: nola dauden eratuta, nola osa daitezkeen antzekoak...). Gero, ikasleak bakarka euren olerkiak idatzi ditzatela. Bukatzean, talde handian, berriz ere, asmatutako olerkien errezitaldia egin olerkien irakurketa dramatikoak zaindu eta landu behar duzuela ahaztu barik.

Konturatuko zineten bezala, olerki hauek aukera paregabea ematen dute aditza lantzeko (baldintza eta ondorioa), eta baita deklinabidea ere, CDRean hainbat jarduerak aurkituko dituzte lantzeko.

Gelan egindako olerki guztiekin bilduma osa dezakezue, eta ikastolako liburutegian jarri.

9. Ikasnorabidea

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 8 eta 9. or.

Hasteko, ikasnorabidean inguruneari dagokion blokea irakurtzeko denbora emango diegu ikasleei. Gero, unitateari orriz orri gainbegirada emateko aukera izango dute ikasleak, gaia nondik nora doan ikusteko eta horri buruzko aipamenak egiteko; talde handian nahiz talde txikietan egin dezakete lan hori.

Gogoratu ikasleak ikasnorabidera etengabeko joan-etorrian ibiliko direla unitate osoan zehar, lantzen ari diren edukiaz jabetzeko eta ikasten ari direnaren kontzientzia izateko. Gogoratu, baita ere, unitatearen blokeak edo atalak era horizontalean adierazita daudela eta halaxe irakurriko ditugula ikasnorabidean, hau da, bloke bakoitzean hiru arloetan garatzen ari garenari erreparatuko diogula.

10. Txoko zuria

Lan egiteko era: Talde handian

Behin ikasleek argi dutenean zein den egingo duten proiektua eta baita proiektu hori egiteko zer ikasiko eta landuko duten, txoko zuria hornitzen hasteko unea heldu da. Taldean hitz egin ezazue, eta ikusi bakoitzak gaiarekin zerikusia duen zer elementu izan dezakeen etxean gelara ekartzeko (liburuak, posterrak, irudiak, jolasak, marrazkiak, argazkiak, bideoak, komikiak, panpinak, mozerroak...), eta, ekarri ahala, aurkeztu eta txokoan jarri.

Liburuez gain, arabiarrei buruzko informazioa beste hainbat lekutan ere bil genezake. Prentsa idatzian, esaterako, erlijioa, petrolio edo bestelako arazoak direla, arabiarrei buruzko hainbat artikulua agertzen dira, beraz, aukera paregabea duzue gai hau landu ahala, egunero egunkaria gelara ekarri eta aztertzeko, eta gaiarekin lotura duten artikulua irakurtzeko eta komentatzeko. Arabiarrek bizi duten egoera, haien izaera, hainbat lurraldeetan sortutako guduen arazoien jatorria eta beste hainbat gauza ulertzeko ikasleei gai hau baliagarria gertatuko zaielakoan gaude.

11. Arabiar penintsularen kokapena

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 10. eta 11. or. eta Lan-koaderno, 11. or.

Hasi aurretik, gogoratu, ikasnorabidera joan etorria egitea.

Lehenengo mailatik hona ikasi dituzten zibilizazioak agertzen zaizkie ikasleei liburu 10. eta 11. orrialdetan ageri den historiaren ardatz kronologikoan. Ardatzean, zibilizazio bakoitzaren sorrera da markatzen duguna, gogora arazi iezaiezue hau ikasleei, pentsa ez dezaten hor hasi eta bukatu zela zibilizazio bakoitza, gerta baitaiteke ikasleek kontzeptu okerrean bat eraikitzea eta pentsatzea adibidez, gaur egun ez dagoela egiptiarrik edo erromatarrik.

Ekar ezazue gogora zibilizazio hauetariko bakoitzari buruz dakizuen, talde handian hitz eginez. Gero, talde handian oraindik ere, beha iezaiezue islamiar zibilizazioari (noiz hasi zen eta hari dagozkion hainba berezitasun) eta hitz egin ezazue elkarriketan sortutakoaz.

Horren ostean, ekar ezazue gelara munduko mapa, eta beha iezaiezue taldean: non dagoen Arabiar penintsula, non Euskal Herria... Ekar itzazue gogora, baita ere, kontinenteen izenak eta haien kokapena, ozeanoen izenak eta haien kokapena. Gero, ikasle bakoitzak bere unitateko mapatxo hori duela erreferentzia, adieraz dezala jardueran eskatzen zaiona (non dauden Arabiar penintsula eta Euskal Herria).

Unitateko mapari behatzean, ikasleak esan dezake (eta bestela irakasleak horretara eraman) mapa horrek ez duela antzik orain artean eskaini zaizkien munduko mapekin; edota antza badu ere, itxura ezberdina duela, beste era batera kokatuta daudela kontinenteak. Norbaitek esan dezake mapa hori ez dagoela ondo, ez dela zuzena, alegia. Beraz, ondo dagoela frogatzeko, behaketa estrategiak martxan jarriko ditugu eta gelara ekarritako munduko maparekin alderatu, esandakoa berresteko edo ukatzeko. Jarduera honen bidez, ikasleak behaketan trebatuko dira, jabetzen joan daitezen itxuraz gain edukiari ere erreparatu behar zaiola.

Orrialdeko maparekin jarraituz, Mei Li eta Maiderren arteko elkarriketa argitzeko, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko ariketak osatzeari ekingo diete. Hiztegia erabiliz, hau da, informazioa bilatu eta erabiliz, penintsula eta uharte kontzeptuak ulertu eta bereganatzeko bidea ematen baitu jarduera horrek. Bukatzean, egindako lana, talde handian hitz egin eta elkarren arteko iritzi-bateratzea egingo da.

Jarraian, arabiar lurraldeak nolakoak diren jakiteko, taldean, mapari behatu eta 11. orrialdeko testuak irakurriko ditugu; gero, Euskal Herriko Bardeetako paisaiarekin erlazionatuko dugu.

Gogoan izan Bardeak, basamortu itxurako lurraldea izanik ere, ez direla basamortu, ez baititu hainbat ezaugarri betetzen ez hedaturari dagokionez, ezta prezipitazio kopuruari dagokionean ere. Klima sub- esteparioa da, Bardeetako, baina desertuko baldintzetako ideia bat eman diezagukeena.

12. Arabiarren bizimodua erdi aroan

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 12. eta 13. or.

Denbora apur bat emango diegu ikasleei bi orrialde hauetan agertzen den informazioa irakurri dezaten eta irudiari behatu. Gero, talde handian, azalpen-testua irakurri eta elkarrizketa sortuko dugu, irakurri eta ikusitakoari buruz hitz egiteaz gain, irudiaren behaketa konpartitzeko.

- *Hasteko, argitu ezazue zer adierazi nahi duten, basamortu eta estepa hitzek. Bila ezazue hitzon esanahia hiztegian.*
Estepa: larredi hedatsua, landare xerofiloa (ur gutxi behar dutenak) duena eta zuhaitzik gabekoa...
Basamortua: Ezaugarri nagusiak euri-eskasia eta lurrunketa handia dira eta horren ondorioz animalia- zein landare-bizitza oso mugatua dago ...
- *Zer da zokoa? Zer da meskita? Zergatik egongo ote da hiria harresiez babestua? Nondik ote dator dromedario karabana? Zein animalia mota ikusten dituzue irudian? Zer landatuko ote dute oasietako baratzetan?...*
- *Zergatik uste duzu basamortuko biztanleak goitik behera tapatuta ibiltzen direla?*
Soinekoak ez dute ez berotzen ez hozten, norberaren beroa gordetzen dute eta kanpokotik babestu.

13. Ideia nagusia

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian - Bakarka

Materiala: Lan koadernoan, 12., 13. eta 14. or.

Hasteko, denbora pixka bat emango diegu ikasleei lan-koadernoko testua irakurri dezaten, eta irakurri ahala, liburuko 12. eta 13. orrialdeko irudiei behatu eta irakuritakoarekin erlazionatzeko. Gero, talde handian, ideia nagusia lantzeko lan-koadernoan proposatzen diren jarduerak osatzeari ekingo diogu.

Aurreko unitateren batean aipatu bezala, jarduera hau taldean egingo dute ikasleek, eta irakaslearen azalpenen laguntzarekin. Gogoan izan, testuaren laburpena bera baino garrantzitsuagoa da ikasleek ulertzea eta zer egiten ari diren jabetzea eta zein estrategia jarraitu behar dituzten testuko ideia nagusiak bilatzeko eta antolatzeko. Beraz, esan bezala, prozesuari garrantzia emanez, behar beste denbora hartuko dugu gaia patxadaz lantzeko, behar beste azalpen eman eta adibideekin hornitzeko. Behin ideia nagusiak aurkitu eta antolatu ostean, ikasleek, arbelean idatzitako testuaren laburpena euren lan-koadernoan kopiatuko dute. Bukatzeko, idatzi berri duten testua berrikusi eta zuzendu egingo dituzte.

14. Polisemia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Lan koadernoa, 15. eta 16. or.

Arabiarren bizimodua adierazten duen marrazkian badira hitz batzuk esanahi bat baino gehiago dutenak, polisemikoak, alegia. Hitz polisemikoen esanahia hiztegian bilatzen eta testuinguru ezberdinetan erabiltzen ikasteko asmotan, lan-koadernoko ariketak bakarka osatzen saiatuko dira ikasleak.

15. Artelanak

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Talde txikian

Materiala: Liburua, 14. or.

Liburuan irakur dezakegun bezala, musulmanek lerroekin eta koloreekin forma harrigarriak sortzen zituzten, eta forma horiek sortzeko oinarritzko modulu batzuetan oinarritzen ziren. Gaur egun ere, hainbat diseinuren oinarrian moduluak eta modulazioak aurkitzen dira: zeramikazko baldosetan, eraikinen formetan eta koloreetan, altzarietan, oihaletan, apaingarrietan, gerrikoetan...

Erakutsi ikasleei arabiarren diseinuak, baita hainbat modulazio ere (DBH 1. mailako ikasleek egiten dituzte, ikus gida honen ernaskinean), eta aztertu gure inguruan non aurki ditzaketen modulazioak, aztertu, baita ere, zein den modulazio horien oinarritzko irudia (hainbat aldiz eta kokapen anitzekin errepikatzen dena), eta, eskura badituzue, ekarri gelara modulazio horien argazkiak eta abar.

Ondoren, haur bakoitzak hainbat modulazio egiten jarriko dugu, eta horretarako, modulu moduan oinarritzko irudi geometriko lauak (edo hauen zatiak) erabili: laukiak, hirukiak, zirkunferentziak, elipseak... Elementu horiek espazioan, kartulinan, modu jakin batean errepikatuz, eta erritmo edo sekuentzia bat sortuz, forma horien modulazioa lortuko dugu.

Komeni da kartulina espazio desberdinetan banatzea, pentagrama bat balitz bezala (ikus zenbat espaziotan banatuko duzuen), eta bertan figurak, formak, modu jakin batean errepikatzen joan. Kartulina horizontalki banatzen badugu eta bertan modulua errepikatu, modulazio lineal soilena lortuko dugu.

Modulazio dinamikoa nahi bada, moduluak espazioan diagonalean mugitu beharko ditugu beti ere errepikapenak modu berean eginez erritmo jakin bat lortzeko. Nahi izanez gero, kartulinako espazioak ere diagonalean bana daitezke mugimenduaren sentsazioa areagotzeko.

Modulazioa irudi edo modulu bakar batekin egin daiteke edota hainbat irudi konbinatuz.

Moduluak, kolorearen bidez, mantxaren bidez, adieraz daitezke edo lerroak bakarrik haiek adierazteko. Kolorea ere modulatu daiteke erritmo jakin batean errepikatuz. Azalera adierazkorragoa egiteko, ehundurak erabil ditzakegu.

Modulatzerakoan figurak jarraian jar daitezke, bata bestearen gainean, bere barruko espazioa zatituta, figura eta hondoa elkartzuz...

Hala ere, kartulinan egiten hasi aurretik, komeni da orri zaharretan froga batzuk egitea, gustukoenak aukeratzeko. **Urrats honi bere garrantzia** eman behar zaio sortze prozesuan, frogak egin hasi aurretik eta ez lehenengo ideiarekin abiatu.

Nahi izanez gero, modulazioak bolumenean egin ditzakegu erreziklatzeko materiala erabiliz (plastikozko botila txikiak, botoiak, botilen tapak, kartoizko hodiak...)

Komuneko papereko hodi dezente baditugu, oinarritzko modulua izan daiteke bera (zilindroa, urrutira lauki zuzen moduan ikusiko dena). Nahi bada konbinatzeko arrautza kaxak erabili daitezke modulazioak egiteko, oinarritzko moduluak definitu ondoren, euskarri gogor samar batean (kartoi gogorra adibidez) kolatuz. Hau guztia kolorearekin konbinatuz gero, oso emaitza ikusgarriak lor ditzakegu. Horretarako margotu edota paper desberdinekin ehundura anitzak sortuz forratu hodiak.

16. Ipuina irakurri aurretik

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 15. or.

Gainontzeko unitateetan bezala, oraingoan ere ipuina irakurri aurretiko jarduerak proposatzen dizkizuegu, ikaslearen motibazioa, jakin-mina, aurrezagutzak, igarpenak eta pentsamendu logikoa martxan jartzeko ulermena indartuz.

Jarduera bakarka osatu ostean, egindako lana taldean egindako elkarriketarekin jarraituko dugu.

17. Aditza lantzen: baldintza

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Lan koaderno, 17. eta 18. or.

Ipuina irakurtzen hasi aurretik, baldintzazko esaldiak landuko ditugu talde handian. Lan-koadernoan adierazten den moduan, baldintzazko esaldien erabileran trebatzea izango da jardueraren helburua, eta horretarako ikasleak lan-koadernoko jarduerak osatuko ditu. Gero, esaldiok zuzen osatzeko lan-koadernoan ematen diren xehetasunak (ikusi 17. or.a) kartoi mehe batean kopiatu, eta plastifikatu ondoren, jarri gelako horma batean erreferentzia gisa, denen begi-bistan, ikasleek behar duten guztietan bertara jo dezaten kontsultatzera.

Ikasleek baldintzazko esaldiak zuzentasunez erabiltzeko eta esaldiok osatzeko erabili behar dituzten aditzak ezagutzeko, eta erabiltzeko, beharrezkoa izango da horretarako egoerak sortzea eta behin baino gehiagotan lantzea; beraz, eman iezaiezue, aurrerago ere, taldetxoetan baldintzetara jolasteko aukera.

Gogoratu, CD-ROMean ere hainbat jarduera topatuko dituzuela.

18. Ipuina: Alfonbra hegalaria

Lan egiteko era: Talde txikian - Bakarka - Talde handian

Materiala: Irakurgaiak, 69., 70., 71. eta 72. or.

Jadanik ezaguna dugun *rol* bidezko irakurketa egingo dugu talde txikietan (irakurketa mota honi buruzko informazioa gogora ekarri nahi izanez gero, 4.1 gidako oharak irakur itzazue).

Ipuina irakurri eta zalantzak argitu ondoren, ikasleek ipuina irakur dezatela bakarka. Gero, ipuinean gertatutakoaren inguruan hitz egiteko elkarrizketa sor dezakezue gelan.

19. Ipuina irakurri ondoren

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Liburua, 16. or.

Liburuan adierazi den bezala, eta ikasleek Xerazaderen ipuinarekin aurrez egin zuten antzera, irakurketa dramatikoan trebatuz jarraituko dute; beraz, talde handian, liburuko aholkuak edo urratsei jarraituz, ipuinaren azterketa egiteari ekingo diogu lehenengo. Gogoratu: ipuineko pertsonaien deskribapenei arreta berezia jarri, pertsonaia horien itxurak mozorrorako pistak emango baitizkizue, eta horien izaerak, berriz, pertsonaien nortasunaren berri emanez, irakurketa mota baldintzatuko baitizue.

Gogoan hartzeko kontu bat: irakurketa dramatikoan trebatzeko ipuin honi buruz liburuan agertzen den prozedura, ipuin honekin ezezik, beste ipuin guztiekin ere jarraitu beharko duzue.

20. Deskribapena lantzen

Lan egiteko era: Bakarka - Binaka - Talde handian

Materiala: Lan koadernoak, 19., 20., 21., 22., 23., 24., 25., 26. eta 27. or.

Lan-koadernoko orrialde horietan deskribapenak lantzeko sekuentziak aurkituko dituzue. Bertan, deskribapenaren egitura gogora ekarri eta deskribapenaren elementu batzuk ere (adjektiboen erabilera, horen graduatzaile batzuk ezagutu, konparazioak egin) lantzen dira. Proposatutako ariketak ez dira zailak, ikasleek bakarka osa ditzakete (edota binaka, egoki ikusiz gero). Dena dela, zailtasun handirik ez badago ere, sekuentzia luzea denez, erregula ezazue jardueren kopurua dinamikaren arabera. Ariketak egin ahala (edo egin ondoren), komenigarria litzateke egindakoa taldean aurkeztu eta elkarren artean iritziak kontrastatzea eta, ahal den neurrian, bateratzea.

Gogoan eduki 21. orrialdean aipatzen diren hainbat hitz (motz, argi, ilun... adibidez), hainbat multzotan sar daitezkeela. Hitz egin horretaz taldean.

Liburuan idatzita dauden adjektiboez gain, burura datozkien beste guztiak ere idatz ditzakete ikasleek.

21. Ipuina: Ali Baba eta 40 lapurrak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak, 73., 74., 75., 76., 77. eta 78. or.

Gaiarekin loturiko beste ipuin bat irakurri eta lantzeko aukera duzue jarduera honetan: *Ali Baba eta 40 lapurrak*. Ipuin horren irakurketa talde handian egin, ikasle bakoitzak ipuinaren zatitxo bat irakurriaz. Bukatzean, elkarriaz sortuko dugu ipuinaren edukiaz hitz egiteko (gustukoa izan dugun, zer iritzi dugun Kasimen portaeraz, Ali Babaren jarreraz, bekaizkeriaren inguruan hitz egiteko, eta abar); gero, irakurketa dramatikoa prestatzeko ipuina aztertuko dugu.

22. Entzunaldia: Arabiar musika

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 19. pista.

Lehenengo mailatik hasita, gure ikasleek hainbat ipuin entzun dituzte musikaz lagunduta. Orain arte irakaslea izan da ipuin horiek kontatzen zituen, baina oraingoan ikasleak izango dira kontatzaile eta protagonista. Ipuin horiek, edo behintzat horietako baten bat, arabiar musikaz lagunduta kontatzea proposatzen dizuegu.

CDan entzunaldi bakarra aurkituko baduzue ere, aukera izanez gero, lor itzazue hainbat arabiar musika eta erabili ipuina eta ikuskizuna bera ere girotzeko.

GURE KONPOSITOREEN TXOKOA

Hasteko, musika entzungo dugu talde handian eta, ondoren, elkarriketa sortu entzundakoari buruz hitz egiteko:

- *Gustuko al duzue musika mota hori?*
- *Ba al dakizue zein jatorriko musika den?*
- *Zein momentu iruditzen zaizue egokiena musika mota hori entzuteko, alegia, zertarako erabiliko zenukete musika hori? (lasaitzeko, alaitzeko, dantzatzeko...)*

Ariketa horiek egin eta gero, arabiar musikari buruzko informazioa bilatzen hasiko gara. Informazio hori jaso, taldean hitz egin eta halako laburpen antzeko bat adostu ondoren, gure konpositoreen txokoan jarriko dugu.

Entzun itzazue gelan biltzen dituzuen arabiar musikak, eta, gero, taldean, adostu zein erabiliko duzuen (ekitaldirako, irakurketarako...), zergatik eta zertarako. Ipuinen eta olerkien irakurketa nahiko landua duzuen, irakurketa horiek musikarekin batera entseiatu.

Litekeena da, ipuinaren irakurketa, entzunaldia baino luzeagoa izatea, hala balitz, jar ezazue berriro musika bera hasieratik edo, nahi izanez gero, prestatu CD bat entzunaldi arabiar guztiekin. Esandakoa aurre ikusita (musika irakurgai baino laburragoa izatea), abesti bera bi aldiz jarraian grabatu dezakezue CD horretan eta ipuina bukatze aldera doanean, bolumena pixkanaka jaitsi.

23. Ingelesko orrialdea

Lan egiteko era: Talde handian - Talde txikian - Binaka - Bakarka

Materiala: Liburua, 17. or.

ARABIA, ISLAM. RECIPE FOR MASKINA

Procedure:

- Bring the ingredients and utensils to class (and a finished maskina cake if you can!)
- This lesson will not take very long, so you have the opportunity to get the pupils to tell you what they have been doing and show you their classroom.
- You are going to help them follow the recipe for the maskina cake so that they can make it at home.
- Tell the pupils they are experts at cooking with recipes in English already. Ask them if they remember how to make pancakes from Hocus and Lotus.

E.g. From the song:
Put some flour on the bowl, bowl, bowl
Put an egg in the bowl
Put some milk in the bowl
And stir
And beat

E.g. from making a lemon cake with Granny in Story Projects 1:
“Let’s make a lemon cake, Granny. We need: 1 lemon yoghurt, 3 cups of flour, 2 cups of sugar, 1 cup of oil, 3 eggs and a sachet of baking powder”, said David.

- Show them the ingredients and utensils and ask what they are in English. Give them the words they don’t know and practice with the new lexis. E.g. play Kim’s Game. Put all the objects on the table. Run through the words. Tell the class to close their eyes. Remove an object. Ask them to open their eyes and say which object is missing. Continue in this way.
- Put them in pairs or groups of three and ask them to think of the instructions for the recipe. They can write down some notes.
- Go around helping and adding suggestions. E.g. *What about the oven? How long are you going to cook it for? Etc.*
- Ask for some example instructions. Get the others to help with the language.
- Ask them to look at page 17 in their books and read the procedure and compare it with theirs. *Is it the same? similar?*

24. Mahoma

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak, 79., 80. eta 81. or.

Mahoma islamaren sortzaile izan zenez, eta haren hitzak eta ekintzak munduaren historian izan duten eragina kontuan izanik, komenigarria da bere bizitzaz zertxobait jakitea. Irakurgaietako testu horretan informazio ugari ematen da, eta taldean landuko dugu. Dena dela, irakurtzen hasi aurretik elkarrizketa sortuko dugu irakurketaren ulermena zaildu dezaketen hainbat hitzen esanahia argitzeko: gorespena, goiangerua, iragarlea, umezurtz, merkataria, erlijioa, ahalguztiduna... Horiez gain, Meka (mapan bilatu eta kokatu) eta Mahoma (galdetu ikasleei ea ezaguna duten, eta ea badakiten nor zen).

Ariketa horiek egin (hitzon esanahia hiztegian begiratu, Mahomari buruzko informazioa bildu), eta gaiaren ingurumaria argitu ondoren, talde handian irakurketa elkarkaria egin.

25. Islamaren sorrera eta zabalkuntza

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Liburua, 18. eta 19. or.

Atal berriarekin hasi aurretik, une egokia litzateke ikasnorabidera joan-etorria egiteko. Ondoren, 18. orrialdeko testua irakurriko dute ikasleek, bakarka eta talde handian. Testu horren helburua hau da: ikasleak jabe daitezela Arabian, Euskal Herrian bezala, naturako elementuak gurtu eta jainkotzat hartzen zirela hasieran (animismoa deitzen dena, erlijioaren aurreko fasea izango zena), eta kontura daitezela denborarekin erlijioak sortu zirela jainkoak pertsonifikatuz. Bestalde, irakurgaitik jaso beharko lukete erlijioak politeistak eta monoteistak izan daitezkeela eta islamismoa, Mahomak sortutako erlijioa, monoteista dela.

Denbora-tartetxo bat emango diegu ikasleei testua bakarka irakur dezaten, eta 18. orrialde horretan agertzen diren ariketak argituko ditugu denon artean. Gero, talde handian, berriro irakurriko dugu testua, bertako ideiak argituz, eta ulertu ote duten ikusteko egia-gezurra tipoko jarduerak osatuko ditugu.

Bukatzeko, munduko erlijio hedatuenen inguruko informazioa, eta elkarren arteko lotura, adierazten duen irudia taldean behatu, eta bertan agertzen den informazioa irakaslearen azalpenekin osatu ondoren, ezagutzen ditugun beste zibilizazio edo gizarte batzuen erlijio eta sinesmenen inguruan mintzatuko gara. Jarduera honen helburua ez da ikasleek horko informazioa buruz jakitea, baizik eta, hiru erlijio horien berri izatea, eta jakitea, hirurak enbor beretik sortu zirela eta gero bakoitzak bere berezitasunak harturik garatu eta zabaldu zirela.

19. orrialdean irakaslearen argibideak entzun behar dituztela esaten du liburua. Hona hemen, hiru erlijio hauei buruzko informazio laburra zuek era sinple batean adieraz diezazue:

KRISTAUTASUNA

Kristauak Jainko bakar bat dela sinesten dute, eta Jainko horrek sortu zuela mundua, eta egindako bekatuengatik zigortutako gizakiak salbatzearen bere seme Jesu Kristo Lurrera bidali zuela Jainko horrek.

Jesus, Jainkoaren semea, Judean jaio zen, garai haietan Erromatar Inperioaren zati bat zena, eta maitasunari eta barkamenari buruzko irakatsiak zabaldu zituen. Jarraitzaile asko izan zituen, baina etsaiak ere egin zituen apaiz juduen artean.

Kristauen liburu sakratuak, Bibliak, bi zati nagusi ditu: lehenengoa, Itun zaharra edo Biblia hebreoa, eta bigarrena Itun Berria, Jesusen eta bere diszipuluen bizitzak eta lanak deskribatzen dituen.

Hiru erlijioak lotzen dituen atal bat aipatzearren, Bibliaren Itun zaharrak dionez Jainkoa Abrahami agertu zitzaion, eta Jainkoaren nahia munduan zehar zabaltzeko agindua eman zion.

Kristauak elizetan edo katedraletan egiten dute otoitz eta igandea dute gurtza-egun nagusia. Eliza horietan Jainkoaren, eta erlijioaren beste hainbat adierazleren irudiak izaten dira.

JUDAISMOA

Judaismoa juduen erlijioa da. Zerua eta lurra sortu zituen Jainko bakar bat dela sinesten dute. Jainkoak itun bat (akordio bat) du bizitza zintzoa eta ona daraman ororekin. Judaismoaren liburu sakratua *Biblia* hebreoa da (Biblia kristauaren lehen zatia edo *Itun Zaharra*).

Judutar erlijioak debekatu egiten du Jainkoaren, eta erlijioaren beste edozein adierazleren, irudiak edukitzea bere tenpluetan.

Tradizioz juduek ezin dute larunbatetan lan egin. Larunbata da gurtza egun nagusia eta egun horretan sinagogara (beren tenplua) joaten dira, errabino batek ospatzen duen zerbitzura.

ISLAMA

Islamaren jarraitzaileak musulman izenez ezagutzen dira. Islamaren sortzailea Mahoma profeta izan zen, Mekan (Arabia) K.o. 570. urtean jaio zena. Gabriel aingerua agertu omen zitzaion, eta esan zion Ala izeneko jainko bakarra zegoela, eta berak, Mahomak, Jainko horren nahia irakatsi eta zabaldu behar zuela.

Alaren hitzak, Gabriel aingeruaren ahotik entzundakoak, eta Mahomak jasotakoak, Koran izeneko liburu sakratuan idatzi zituzten.

Islamak debekatu egiten du Jainkoaren, eta erlijioaren beste edozein adierazleren, irudiak edukitzea bere meskitetan.

Ostirala musulmanentzat egun garrantzitsua da. Egun horretan meskitetan (beren tenpluetan) biltzen dira Imanari (buruzagi erlijioso musulmanari) entzuteko.

Hor goiko hiru erlijioei buruzko informazioaz jabetzeko eta konparaketa txiki bat egiteko aukera ematen duen koadroa osatu dugu alboko orrialdean. Nahi izanez gero, fotokopiatu, eta ikasleen artean banatu dezakezue. Jarraitu beharreko prozedura hau litzateke: irakasleak goiko testu bakoitzaren atalei buruzko azalpen erraz bat egin, eta ikasleek, informazio horrekin, taula osatu. Bukatzeko, bakoitzaren erantzunak alderatuko ditugu talde handian, eta, nahi izanez gero, konparazio testua denon artean osatu.

Data:

Izen-abizenak:

Gela:

Kristautasuna, Judaismoa eta Islama

Konparazio-testua egiten hasi aurretik, osa ezazu beheko koadroa. Ezaugarria betetzen denean “+” ikurra jarri, eta betetzen ez denean “-“ ikurra. Alderdi komunak eta desberdintasunak hobeto ikusiko dituzu.

	KRISTAUTASUNA	JUDAISMOA	ISLAMA
Jainko bakarra du			
Irudiak debekatzen ditu			
Irudiak onartzen ditu			
Liburu sakratua du			
Meskita egiten dute otoitz			
Sinagoga egiten dute otoitz.			
Eliza edo katedraletan egiten dute otoitz			
Ostirala du gurtza-egun nagusia			
Larunbata du gurtza-egun nagusia			
Igandea du gurtza-egun nagusia.			

Gogoratu konparazioak egitean antzekotasunak adierazteko hitz egokiak (hirurak, hirurek, biek...) erabiltzen saiatu behar duzula, eta gauza bera erlijioen arteko ezberdintasunak edo aldeak adierazteko garaiena ere (berriz, ordea, ostera...).

Idatz ezazu orain zure konparazio testua.

Oharra: Hemen behean duzu idazteko lekua. Izenburua idatzita agertuko da, erdian eta zentratua: KRISTAUTASUNA, JUDAISMOA eta ISLAMismoa.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

26. Islamaren zutabeak eta ohiturak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Liburua, 20. or.

Musulmanen ohituren berri izateko, 20. orrialdeko azalpen-testua irakurri eta hainbat kontzeptu talde handian argituko ditugu. Nolanahi dela ere, argi eta garbi izan behar dugu jardueraren helburua ez dela kontzeptu horiek ikasi eta bereganatzea.

Bestetik, orrialde horretan bertan ageri den Kleo eta Maiderren arteko elkarrizketa ere irakurri eta argitu ezazue, talde handian. Elkarrizketa horretako egoerak adierazten duen bezala, bizitzan ere sarri gertatzen da (lagunen arteko elkarrizketetan), besteak esango duena bere osotasunean entzun beharrean, esango duena suposatzen da, eta, askotan, esan ez duenaren gainean osatzen da iritzia, dena entzun ondoren egin ordez. Hitz egin ezazue horren inguruan ere, entzuteko gaitasunaz, alegia.

27. Lagun onak izateko ideiak antolatzen. Elkartasuna lantzen

Lan egiteko era: Talde handian - Talde txikian - Talde handian

Materiala: Lan koaderno, 28. eta 29. or.


Taldean lan bat egiteko esaten diegunean ikasleei, lan horren emaitza, zenbaitetan, bakarka egindako lanen batura izaten da; beste zenbaitetan kide bakar batek egindako lana beste kideen ekarpenekin... Aipatutako bi adibideak ez dira taldean egindako lana; taldean egindako lanak denek ekarpena eskatzen dute eta denek artean aztertzea eta osatzea; eztabaidaren eta adostutako edukia islatuko duen lana da, nahiz eta gero, bakarkako lana ere egon daitekeen, askotan: beste mota bateko lanaren banaketa eskatzen du horrek, edizio-lana, adibidez.

Jarduera honen bidez, elkartasunez lan egiteko dauden tekniketako bat aurkeztea eta martxan jartzea proposatzen dizuegu. Garrantzitsua deritzogu, talde-lanerako ohitura ondo garatzeko, pauso guztiei adierazi bezala jarraitzea.

Teknika honen bidez lan eginez, denek parte-hartzea ziurtatzeaz gain, prozesuaren momenturen batean denek ideiak azalduko dira, eta hori garrantzitsua da norbanakoentzat. Horrez gain, entzuketara aktiboa eta adierazpeneko gaitasunak landuko dituzte ikasleek: besteen iritzia entzun eta ulertu, norberarenak azaldu, aurreko taldean adostutakoa hurrengo taldeari adierazi, etab.

Jarduerarekin hasi aurretik, komenigarria litzateke talde handian hitz egitea hor goian esandako guztiaz, eta baita, jarraituko duzuen prozedura zein izango den argitzea.

Hurrengo orriladean taldekatzeen adibide grafikoa duzue:



28. *Erranak erran eta Iritzi-errota*

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian - Binaka - Talde handian

Materiala: Liburua, 21. or.

Unitateko orrialde honetan iritzi-errota martxan jartzea proposatzen zaie ikasleei, hor idatzita dauden erranak adierazten dutenaren inguruko iritzia eman eta alde edo aurka argudiatzeko. Beraz, gauzak ordenan egiteko, iritzi-errotarekin hasi aurretik *Erranak erran* jarduera martxan jarriko dugu. Hasteko, erran bakoitzaren esanahiaren inguruan hausnartu, bakarka; gero, taldean esanahia argitu eta, azkenik, binaka hainbat egoera adierazgarri asmatu eta talde handian antzeztu. Ez ahaztu erranak euren txokoan idazteaz!

Lehenengo urrats hori egin eta behin erranen esanahia argi dugula, betiko prozedura jarraituz, iritzi-errota jarriko dugu martxan. Iritzi-errotaren helburua eta prozedura zein den gogoratzeko, irakurri, 4.1. gidako 23. jarduera. Gogoan izan orain duzuela aukera elkarriketa formalak bideratzeko aplikatu beharreko alderdiren bat bereziki lantzeko (ikus hizkuntza arlokoan elkarriketari dagozkion ziklo bukaerako helburu didaktikoak eta ebaluatzeko irizpideak).

29. Elkartasun jolasa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Liburua, 21. or.

Jarduera honetan proposatzen den jolasaren bidez, lagun artean laguntza hartu eta ematen ikasteko ekintza landuko dugu. Helburua da ikasleek beste lagunen beharrez jabetzea, eta behar horiei modu baikorrean erantzuteko gaitasuna lantzea.

Jolasean egiteko, hareazko poltsatxoak egin beharko dituzue. Hamabost-hogei bat cm luzera eta beste hainbestetxo zabalaren izango dituzten oihaltxoak moztu eta josi, eta, hareaz edo laborez (arroza, adibidez) bete. Poltsa horiek aldeztatik aurretik prestatuta eduki daitezke, horrela egoki ikusiz gero; bestalde, ikasle bakoitzak berea egin dezake gelan (modu horretan, ikasleak josten trebatuko lirateke). Oihalezko poltsak egin beharrean, neurri beretsuko plastikozko poltsa txikiak erabil ditzakezue, hareaz nahiz labore txikiz beteak.

Betiko erritualari jarraituz, hasi jolasean, eta bukatzean, esperientziari buruz hitz egiteko elkarrizketa sortu.

30. Musulmanak iberiar penintsulan

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 22. eta 23. or.

Atal berri honekin hasi aurretik, egin ezazue joan-etorria ikasnorabidera, ohikoa duzuen bezala.

Musulmanen konkistak nondik norakoak izan ziren jabetzeko, ikasleek, bakarka, testua irakurri eta jarduera osatu beharko dute. Gero, talde handian, bi orrialdetako informazioa irakurri, irudiekin erlazionatu (komenigarria litzateke munduko mapa gelara ekartzea eta horrekin erlazionatzea) eta horri buruz duten iritzia eman dezaten elkarrizketa sortuko dugu.

31. Arabiarren ekarpenak

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 24. eta 25. or.

Utzi iezaiezue ikasleei tartetxo bat testuok irakurri eta jarduerak osatzeko. Gero, sor ezazue elkarrizketa erantzunak erkatu eta iritzia eztabaitu eta, ahal den neurrian, bateratzeko, norberaren aukeraketa arrazoitu eta justifikatu ondoren.

32. Ba al zenekien...

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Irakurgaiak, 82. or.

Irakurgai honetan arabiarrei buruzko hainbat bitxikeria aurkituko ditugu. Ikasleei orrialde hori bakarka irakurtzeko aukera eman ondoren, irakurgaiako atalak banan-banan irakurriko ditugu talde handian, eta atal horietako bakoitzari buruz hitz egiteko aukera eman, elkarrizketa sor dadin ahaleginduz.

33. Arabiar jatorriko hitzak aztertzen

Lan egiteko era: Bakarka - Binaka

Materiala: Lan koadernoak, 30., 31., 32. eta 33. or.

Jarduera honen helburu nagusia ez da ikasleei arabiar jatorriko hitzak buruz ikasi araztea, modu ludiko batean, euskarazko hainbat eduki lantzea baizik: hiztegiaren erabilpena, definizioen ulermena, definizioen eraketa modu formalean eta xelebrean...

Gurutzegrama osatzearen sekuentzia hau patxadaz egin eta arestian aipatutako edukiak behar bezala landu. Horretarako, ikasleak denbora beharko du; beraz, dinamikaren arabera saio ezberdinetan bana dezakezue lana. Bestalde, interesgarria litzateke irakasleak ikasleen lanaren prozedura behatzea bertatik bertara, zailtasunak non dauden detektatzeko, eta baita horiek jaso eta, talde handian, modu esplizituan, egin beharreko lanaren inguruan eraketan parte hartzen duten estrategiak landu ere.

34. Teknologia: Noria

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Liburua, 26. or.

Teknologia lantzeko garaia iritsi zaigu jardura honetan: noria bat egitea proposatzen dizuegu. Noria eraikitzea ez da zaila, baina denbora eta lana eskatzen du; horregatik, bakoitzak berea egin beharrean, talde osoak bakar bat egitea proposatzen dizuegu. Talde handian egingo dugu, beraz, prozedura guztia: egin beharrekoa irakurri eta argitu, materiala bildu eta, urratsak jarraituaz, noria eraiki. Lan guztietan bezala, teknologia lanetan ere, egin ostean hainbat huts ikusten dira. Hutsetatik ikasi egiten dela esamoldeari eutsiz, nahi izanez gero, taldean egindako lana eta lan egiteko modua kritikatu eta baloratu hobekuntzak proposatu eta aplikatuz beste noria bat eraikitzeari ekin diezaiokezue. Egindako lana egokia dela ikusiz gero, zuen proiektura bideratu dezakezue.

Kontuan hartzekoak:

- Piezak kolatzeko komenigarria litzateke zianokrilatoa erabiltzea (loctite) erabiltzea. Pegamentu horrek duen arriskua dela eta, lan hori kontu handiz egin beharrekoa da (irakasleak edota irakaslearen begiradapean) eta ez leudeke soberan plastikozko eskularruak.
- Noria ezin da egun bakar batean eraiki, piezak, loctitea eman ostean, sikatzeko utzi behar baitira.
- Liburuan adierazten den prozedura aplikatuz gero, pauso bat falta dela ikusiko duzue. Hau da, noria ezin da inon eutsi eta horrela ez dabil. *Nola konpon dezakegu arazo hau?* Erantzuna emateko hainbat aukera (goitik zintzilik, behetik euskarri jarrita...) aztertu taldean, bakoitzaren alderdi onak eta txarrak ikusi, eta egokien deritzozuena aplikatu.

35. Arabiar arkitektura

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 26. or. eta DVDa.

DVDan musulmanak Iberiar penintsulan eta baita Euskal Herrian ere utzitako ondare arkitektonikoari buruzko informazio duzue. DVDa ikusi aurretik, utzi iezaiezue ikasleei tarte bat DVDan entzun eta ikusitako informazioarekin egin beharko duten jardueraz jabetzeko, eta baita ere, lan hori egiteko egokienak diren teknikak (oharrak hartu...) eta materialak (liburua, folio bat...) modu askean hautatzen.

DVDa ikusi eta jarduera osatu ondoren, elkarrizketa sortuko dugu gaiaren inguruan, eta baita tarte bat hartu ere, lan egiteko hautako teknika kritikatu eta balioesteko.

36. Musulmanak Euskal Herrian

Lan egiteko era: Bakarka - Binaka

Materiala: Liburua, 28. or.

Ikasleek, bakarka, azalpen-testua irakurri eta galderei erantzungo diete. Jarduera honen bidez testu bateko datu zehatzen bilaketan trebatu nahi ditugu ikasleak. Jarduera amaitu ondoren, talde handian zuzenduko dugu.

37. Ipuin baten irakurketa: Orreaga

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak, 83., 84., 85., 86. eta 87. or.

Irakurgaietako Orreaga ipuina, nahiz eta istorio xeble gisa kontatua egon, ez da ulerterraza, historiako datu ugari baititu. Ipuina irakasle batek kontatzen duenez, unitate honetan ipuin hau irakasleak ikasleei kontatzea proposatzen dizuegu. Beraz, komenigarria litzazuke zeuk ipuina behin baino gehiagotan irakurtzea, ondo ulertzea eta zein eratan kontatuko diezun (estrategiak) aurreikustea eta hasi aurretik saio batzuk egitea. Irakurketaz gain, baliabide ezberdinak erabili ditzakezu: mapak erakutsi, arbelean irudiak marraztu... , baina beti ere garrantzitsuena ahaztu gabe, hau da, baliabide prosodikoak erabiltzea: erritmoa, doinu aldaketa... Gogoan izan helburua ahal duzun modu atseginean ipuina kontatzea eta ikasleek ipuina ulertu eta hartaz gozatzea dela. Irakurketa bukatzean, hitz egin ezazue ipuinaren gaiaren inguruan. Ez ahaztu zeure lana kritikatzeko eta balioesteko, eta egindako lanaz iritzia eskatu ikasleei. Balioespen-lanak egiteak gero egin beharreko proiektuan aurkituko dituzten zailtasunen berri emango die.

38. Altabizkarko kantua. Elkartasunez marrazten

Lan egiteko era: Talde handian - Talde txikian

Materiala: Liburua, 29. or.

Orreagako guduan gertatutakoak kontatuz idatzitako poema dugu Altabizkarko kanta. Benito Lertxundik abesten eta errezitatzeko du kantu hori; lortuz gero, entzun ezazue.

Abesti horren letra ulertzeko zaila denez, testu horren irakurketari eta ulermenari dagokion lana eta azterketa talde handian egingo dugu, eta irakaslearen laguntza ezinbestekoa izango da.

Denbora apur bat emango diegu ikasleei lehenengo ahapaldia irakurtzeko, eta, ondoren, elkarrizketa sortuko dugu:

–*Ulertu al duzu hor esandakoa?*

–*Gai izango al zinateke zure hitzekin era laburrean azaltzeko?*

–*Aurkitu al duzu hitz ezezagunik? Aipatu hitz horiek eta saiatu esanahia inferitzen edota hiztegian bilatzen.*

–*Zein euskalkitan uste duzu dagoela idatzia kantua?*

Elkarrizketa bukatu ondoren, ahapaldiak adierazitakoa ahoz laburtzen saiatuko gara. Gero, ahoz esandakoa arbelean idatziko dugu, euskara batuan eta esaldien egiturari erreparatuz modu zuzenean. Gauza bera egingo dugu gainontzeko ahapaldi guztiekin. Lan hau bukatzean, arbelean esaldi zerrenda bat izango duzue, komiki bat egiterakoan komikiko bineta bakoitzean adierazi beharreko egoera duzuela ataltxo bakoitzean. Hona hemen lor daitekeen zerrendaren eredu bat:

- 1 Etxeko jaunak (euskalduna) oihu bat entzun du, eta irten egin da. Etxeko atarian dago mendi aldera begira. Txakurra aldamenen du, garasika.
- 2 Mendi aldeko arroka artetik armada baten (frankoena) burrunba entzuten da. Euskaldun zelataria (mutikoa edo haurra) abisua ematen ari da (adarrarekin). Etxeko jauna bere dardak (geziak) zorrozten ari da.
- 3 Mutikoa menditik etxera jaitsi da eta ikusitakoa aitari kontatzen ari zaio. “Bandera eta lantzekin datoz, mendi aldetik; asko dira”
- 4 Euskaldunak mendi aldera doaz (armadakoak baino dezente gutxiago dira) eta arroka artean jarri dira; harriak prestatzen ari dira.
- 5 Euskaldunak menditik behera harriak botatzen ari dira eta beheko bidetik datozen soldadu batzuk harrien kolpeekin hil egin dira.
- 6 Karlomagno erregeak, soldadu gehienak hilik ikustean alde egiten du. Errolan bere iloba ere hilik dago.
- 7 Bertan geratu diren soldadu guztiak lurrean daude hilda. Euskaldunak hildakoak kontatzen ari dira.
- 8 Etxeko jauna (euskalduna) bere familiarekin (emazte eta hurrekin) etxean garaipenaren ostean pozik dagoen bitartean, mendi aldean arranoak soldaduen gorpu hilak jaten ari dira.

Aurreko zerrenda hori egin eta istorioa nola den jakinik, bineta bakoitzaren xehetasunak aipatuko ditugu. Hona hemen adibide batzuk.

- Nola marraztuko dugu etxeko jauna? Izan kontuan garai hura ez zela gaurkoa. Adibidez... ardi larruz, makila luzeekin, bizarra, etab.*
- Eta nola marraztuko dugu haren etxea? Gaur eguneko borden antza handia izango zuen seguruenik.*
- Nola marraztuko dugu Karlomagno? VI. ahapaldian zehazten dira hainbat xehetasun; irakur ezazue berriro.*
- Eta soldaduak? Ba al zenekiten frankoen soldaduek arma astunak zituztela? Zelakoak izango ziren? Gezi luzeak, ezkutuak...*

Jarraian, zortzi talde txiki osatuko ditugu, eta talde bakoitzak egokitu zaion bineta kartulina (handi) batean marrazten hasiko da, eta, egiten duenean, abestiaren letra (dagokion ahapaldia) aldamenen idatziko dio. Nahi izanez gero, bineta horri dagokion azalpentxo ere idatz dezakete, arbelean idatzitako laburpen hori.

Talde-lana elkarrekin eta elkertasunean egin beharko dute, taldean adostuz marrazkian agertuko diren elementuak, zein izango diren erabakiz eta kartulinako zein espaziotan marraztuko dituzten; irudien kolorea zein izango den, bakoitzak zer marraztuko duen, etab. Elkertasunean egindako komikia da lortu nahi duguna, eta horretarako etengabeko komunikazioa (ahozko adierazpena eta entzuketa aktiboa) egon beharko du; irudimena erabili, besteek proposatutakoa geure egiten saiatu, geure buruari balegokio bezala irudikatu, proposamenak justifikatu, adostu, elkertasunez jokatu...

Gaitasun komunikatiboak, sozialak, motrizak eta komunikatiboak lantzen dira jarduera honen bidez. Elkartasunean egiten ditugun jolas guztiekin egiten dugun modura, lana bukatu ostean, egindako talde-lana kritikatu eta baliosteko elkarrizketa sortzen saiatuko gara:

–*Gustura sentitu al zarete lan hau egiten ibili zareten bitartean?*

–*Denek hartu al duzue parte?*

–*Benetan talde-lana izan da momentu oro?*

–*Zein izan dira izan dituzuen zailtasunak?*

–*Eta akatsak?*

Taldean lan egitearen alde baikorrak eta ezkorrak aipa itzazue...

Talde guztiak egindako lanarekin, Orreagako guduaren komiki handia osatzea lortuko dugu. Komiki hori ikastolako pasiloan jar dezakezue denek ikusteko moduan, eta nahi izanez gero, proiekturako ere erabil dezakezue, komikia oinarri, abestia errezitatzeko.

39. “Orreagako gatazka”: Dramatizazioa

Kudeaketa: Talde handian

Aurreko jardueran egindako lan guztia aprobetxatuz, eta, bide batez, ulermena sendotzeko, aukera paregabea duzue historiako une hori dramatizatzeke, eta zuen proiektuan aurkezteko. Urrats hauek jarrai ditzakezue:

- Mozorroak egiteko materiala bildu.
- Istorioa bi toki ezberdinetan gauzatzen da, jaunaren etxean eta mendi aldean, beraz, nahiz izanez gero, muralak marraztu ditzakezue bi leku horiek irudikatzeke.
- Taldean sortu eta denen artean adostu zein izango diren, egoera bakoitzean, pertsonaien elkarrizketak eta idatzi gidoitxo (sinple-sinplea. Pertsonaiez gain narratzailea ere egon daiteke, gertakizunak historian kokatzeko eta pasarteetan arteko loturak egiteko).
- Dramatizazioa egin aurretik saioak.

40. Nafarroako erresuma

Lan egiteko era: Talde handian - Talde txikian - Talde handian

Materiala: Liburua, 30. eta 31. or.

Unitateko orrialde horietan (30 eta 31.ak), Nafarroako erresumaren sorrerari eta haren historiari buruzko irudiak eta testuak ditugu. Testuak huts-hutsean harturik, ulertzen zailak izan daitezkeenez, taldean irakurri eta argituko ditugu. Gero, denon artean testuok adierazten dutenaren dramatizazio txiki bat antolatuko dugu, euskaldunon historiako une garrantzitsu hura hobeto ulertu eta barnera dezagun. Ondoren, talde txikietan liburuak jarduerak egiteari ekingo diogu, ahozko adierazpena prestatzen, alegia. Egindako antzezpen txiki hori proiektura bideratu dezakezue.

Argitxok esandakoari (31. or.a) erreparatuz eta euskararen hedadura murritzten joan dela ikusi ondoren, euskararen egoerari buruzko elkarrizketa sortzeko aukera duzue.

Jarduerekin bukatzeko, hitz-erota antolatuko dugu betiko urratsak jarraituaz.

41. Musulmanak gaur egun

Lan egiteko era: Talde handian - Binaka - Talde handian

Materiala: Liburua, 32. or.

Atal berriarekin hasi aurretik, ikasnorabideari begiratutxoa emateko unea dugu, beti egin ohi dugun legez.

Musulmanei buruzko informazioa emateko azalpen testuaz gain ziklograma ere eskaintzen digu liburuak. Taldean testua irakurri eta ulertzen saiatuko gara. Gero, tartetxo bat emango diegu ikasleei, binaka, ziklograma aztertzeke eta hark adierazten duena ahoz, modu zuzen eta egokienean, adierazten saiatzeko. Azkenik, talde handian, ziklogramak adierazten duen informazio hori modu zuzenean adieraziko dugu.

42. Irakurzaletasuna

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Talde txikian - Talde handian

Materiala: Liburua, 32. or.

Martinek proposatutako ipuina irakurri ondoren, gelaren dinamikak eta beharrianak eskatzen duenaren arabera zuek aukeratutako eran (taldean, bakarka...), eta liburuko galderak hizpide izanik, elkarriketa sortuko dugu. Liburuan proposatutako galderez gain beste hainbaten inguruan ere hitz egin dezakezue:

–*Amira saiatu al da integratzen?*

–*Lagunek baztertzen dute edo eta bera baztertzen da?*

–*Izebak zer esan dio, zer egin behar duela?*

–...?

Elkarriketa bideratzeko, proposatu dugun liburu horrez gain, nahi izanez gero, beste liburu batzuk ekartzeko eskatu ikasleei (beste lurraldeez hitz egiten duten liburuak, jakina), eta gelan bertan irakurri edota irakurketa maratonia antolatu... (3. mailako gidan duzue honi buruko informazio).

43. Kanta-kantari

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 33. or. eta CDa, 20. pista.

Tarte bat emango diegu ikasleei gaiaren abestia den *Hara ba!* kantaren letra irakur dezaten eta ahapaldi bakoitza ezaguna dugun ipuin batekin erlazionatu dezaten. Gero, talde handian musikarekin batera abestearekin hasiko gara lehendabizi, eta, ondoren, irakurketa dramatikoa egiteko tarte hartuko dugu. Ikasleek abestia buruz ikastea proposatzen dizuegu; beraz, hartu behar adinako tarte abestia behin eta berriro entzun eta abesteko.

Orrialde horretan (33.a), musikako lan-koadernoari sarrera ematen dion ikonoa ikusiko duzue; lengoia musikala eta txirula lantzeari bidea ematen dio.

44. Igarkizunak

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Irakurgaiak, 88. or.

Igarkizunak gozamenerako testuak izateaz gain, irakurritakoa gure ezagupenekin erlazionatuaz irudimena pizten eta garatzen ere laguntzen digute; beraz, eman iezaiezue ikasleei behar adina denbora testuok bakarka irakurri eta erantzunak asmatzeko. Gero, talde handian, erantzunak alderatuko ditugu, eta aipatuko dugu zein izan den pistarik erabakiorrena erantzuna asmatzeko.

Erantzunak: alkandora, alfonbra, kriseilu miresgarria, dromedarioa eta Ali Baba.

45. Arabiar petrolioa eta gerrak

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 34.

Denbora-tartetxo bat emango diegu ikasleei orrialde horretan (34.a) agertzen diren testuak irakurri eta bi galdera hauei idatziz erantzuteko:

–Zein da irakurritako testuen gai nagusia?

–Zeintzuk dira testu bakoitzeko azpi-gaiak?

Ondoren, talde handian, elkarriketa sortzen saiatuko gara: batetik, egindako lanaren inguruan hitz egiteko eta, bestetik, petrolioa eta gerren inguruan hitz egiteko. Gai honi buruzko informazioa etxekoen bidez bilatzen saiatuko dira ikasleak, edota egunkari edo bestelako informazio-iturrietan. Zenbat eta informazio gehiago bilatu, orduan eta elkarriketa aberasgarriagoa lortuko dugu.

46. Hitz-errota: Gizon eta emakumeen arteko harremanak.

Lan egiteko era: Bakarka - Binaka - Talde handian

Materiala: Liburua, 35. or.

Jarduerako hitz-errota hori proposatzen dugunean, hainbat helbururekin egiten dugu: jabetzeko munduko giza taldeen artean ohiturak eta harremanak ez direla berberak; ikusteko ohitura eta harreman horiek, neurri handi batean, kulturak baldintzatzen dituela; gai horri buruzko informazioa bilatzeko; gaiari buruz irakurtzeko, irakurritakoa ulertzeko eta aztertzen diren arazoen inguruko iritziak eman ditzaten ikasleek. Horretarako proposatzen dugu hitz-errota hori.

Liburuan poligamiaren gaia aurkezten bada ere, gizon-emakumeen arteko harremanetan ematen diren beste hainbat alderdi ere azter ditzakezue. Komeni da ikasleek hainbat lekutan (etxean...) kontsultatzeko eta galdetzeko denbora pixka bat edukitzea hitz-errotarekin hasi aurretik. Horrela, jasotako informazioaren eta informazio horren bolumenaren arabera, eztabaida zentratzeko aukera izango duzue, eta hitz-errota aberatsagoa izango da.

Hitz-errotaren jarduera honetako prozeduran urrats berriak txertatu ditugu ikasleek duten jarduna garatu eta hobetu nahian. Hemen behean duzu horren justifikazioa eta gainerako azalpen guztiak.

Ikasleek hizkuntzaren ikasketan aurrera egin dezaten, ikaste horien kontzientzia hartzea funtsezkoa da, kontzientzia horrek berak lagunduko baitie balioesten egiten dituzten aurrerapenak, identifikatzen eta gainditzeko ahaleginak egiten sortzen zaizkien zailtasunak, eta, azken batean, ikaste edo apendizaiia autonomorako estrategiak bereganatzen.

Idatziazeekin zerikusia duten hizkuntza-jardueretan, ikastearen kontzientzia horretara heltzeko beharrezko diren behaketa- eta hausnarketa-lanak egiten lagundu egiten du euskarri idatziak. Ahozko hizkuntzaren ikaste-prozesuan, aldiz, komunikazioaren ahozko izaera horrek berak zailtzen du behaketa hori. Hori dela eta, dagoeneko maila eta izaera ezberdineko ekoizpen idatziekin egin den bezala, komeniko da ahozko ekoizpenen behaketa- eta balioeste-estrategiak garatzen hastea.

Unitate guztietan zehar ugariak dira askotariko komunikazio-asmoekin era antolatu batean (antolaketa maila handiagoa ala txikiagoarekin, taldekatze eta solaskideen *rol* edo betebeharrak ezberdinekin...) proposatzen diren talde-elkarrizketak. Poliki-poliki, talde-elkarrizketa horietan ikasleek euren parte-hartzea behatzeko eta baloratzeko proposamenak txertatzen hasiko gara.

Jarduera honen helburua, beraz, bigarren zehaztapen-mailan adierazten genuen B.1.E azpigaitasunaren baitan kokatuko dugu: *Ahozko hizkuntzaren erabilera egokia, zuzena eta aberatsa baloratu, eta norbere adierazpena hobetzeko eta aberasteko ardura hartu.*

Jarduera egiteko bi momentu nagusi nabarmentzen dira ikasleei liburuan ematen zaizkien azalpenetan:

- Jarduera diskurtsiboaren (*Hitza-errotak*) egitura eta elementuak argitzen dira lehendabizi:
 - . Hizketa-gaia (*gizon eta emakumeen arteko harremanak kultura musulmanena eta gurean*, edo gai nagusi horren alderdi zehatzago bat, *poligamia*).
 - . Prestaketa edo planifikazioa (*informazioa bilatu, iritziak aurrez idatzi...*).
 - . Komunikazio-ekintzaren gauzatze-prozesuko urratsak edo uneak (*lehenengo, informazioa azaldu; gero, iritziak adierazi; azkenik, desadostasunak azaldu eta arrazoitu*).
 - . Norbere jokabidea (*informazio-iturria aipatu, hitza eskatu, moderatzailearen baimenarekin hitz egin...*), nahiz hizkuntz ekoizpena (*iritziak argi eta garbi arrazoitu...*) erregulatzeko jarraibide eta arauak.
- Jarduera diskurtsiboaren ebaluazioari buruzko jarraibideak azalduko dira. Azalpen horien interpretazioak eta barneratzeak ezinbesteko garrantzia izango dute, azaltzen duten behaketa-sekuentzia egoki burutu nahi bada, behintzat.
 - . Helburua: *talde elkarrizketan ikaslea nola aritzen den aztertu.*
 - . Bitartekoak: *ikasle bakoitzaren parte-hartzeari buruz ikaskide baten oharrak eta iritziak entzun eta kontuan hartu.*
 - . Ebaluazioaren uneak eta moduak: *behatzaileak hizlariari behatu, behaketan irizpide jakin batzuk erabili, irizpide horien inguruko oharrak jaso, egindako behaketekin ondorio bat formulatu, ondorioa (balioestea) adierazi.*
 - . Antolaketa: *bikoteka antolatu, hizlariaren eta behatzailearen lanak txandakatu.*

Ikasleek edozein eratako ebaluazioa edo autoebaluazioa egin ahal izateko berebiziko garrantzia izango dute eskaintzen zaizkien ebaluazio irizpideek. Irizpide horiek ahalik eta esplizitoenak izan beharko dute, ikasleek ulertzeko eta errekonozitzeko modukoak, eta batez ere, behagarriak eta neurgarriak, hau da, helburuak bete diren ala ez erraz egiaztatzeko modukoak. Ikasleei liburuan hainbat irizpide eskaintzen zaizkie:

–*Parte-hartzea prestatu al du?*

–*Parte hartu du?*

–*Elkarrizketarako arauak bete ditu?*

–*Egoki hitz egin du?*

–*...?*

Irizpide horiek zehazteko tresna gisa eskaintzen da alboko orrialdean datorren fitxa (**HITZ ERROTA: SOLASKIDEEN PARTE-HARTZEA BEHATU ETA BALORATZEKO FITXA**), irizpide nagusi bakoitzari dagozkion jokabide zehatzagoekin eta behagarriagoekin osatua.

Komenigarria ez ezik, beharrezkoa ere izango da, behaketa lana hasi aurretik, irakaslearekin batera behaketarako fitxa hori irakurtzea, irizpideak interpretatu eta adostea, sobera egon daitezkeenak baztertu eta beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk gehitzea, edota egoerak eta gelakoen izaerak erakusten duenaren arabera... Irakasleak baloratu beharko du eskaintzen diren horiek nahikoak ala gehiegizkoak diren eta, ondorioz, murriztu, luzatu edo bere horretan utzi. Egokitze horretan kontuan izan beharko dira ikasleek horrelako behaketak egiten aurrez duten esperientzia eta trebakuntza-maila (lehenengo aldia bada, irizpide gutxi erabiltzea komeniko da, adibidez), aurrez landutako edukiak...

Era horretako zereginak arrakastaz burutzeko badira bestelako faktore material edo praktikoak ere:

- Oharrak jasotzeko tresna erabilerrazak: behaketarako fitxa orri baten fotokopiatuak, idazteko nahiko tokirekin...
- Oharrak nola jaso ikusteko ereduak: irakasleak ihardueraren ereduak eskaini dezake, bideoz grabatutako edota gelan taldetxo baten artean inprobisatutako elkarrizketa bati buruzko oharrak berak nola jasoko lituzkeen erakutsiz, adibidez.
- Gelaren antolaketa eta ikasleen kokapena: solaskideak borobilean eserita, elkarri begira; behatzaileak, borobiletik kanpo, behatu behar duten lagunaren parean, fitxa apoiatu eta erraz idatzi ahal izateko mahai batekin...

Azkenik, ikasle bakoitzak behaketa lana burutzen duenean, ondorio gisa, behatutako lagunari buruzko balorazioa egitea eskatzen zaio. Balorazio hori errazteko, lau galdera edo irizpide nagusiei buruzko iritzia eskatuko zaio, eta erantzuna gehiago erraztu nahi bada, balorazio eskala bat ere eskainiko zaio: *oso ondo/asko, nahikoa, eskas antzean, gaizki/gutxi*.

HITZ-ERROTA

SOLASKIDEEN PARTE-HARTZEA BEHATU ETA BALORATZEKO FITXA

BEHATUTAKO IKASLEA:

Parte-hartzea prestatu du?	BAI	EZ	OHARRAK:
. Gaiari buruzko informazioa lortu du	☐	☐	
. Iturri bat baino gehiagotatik lortu du informazioa	☐	☐	
. Lortutako informazioa gogoratzeko idatziz ekarri du	☐	☐	
. Bere iritziak idatziz prestatzen ditu	☐	☐	

BALORAZIOA: ☐oso ondo/asko ☐nahikoa ☐eskas antzean ☐gaizki/gutxi

.....

Parte hartu du?	BAI	EZ	OHARRAK:
. Besteen hitzak arretaz entzun ditu	☐	☐	
. Lortutako informazioa azaldu du, hori egitea tokatzen zenean	☐	☐	
. Bere iritzia azaldu du, hori egitea tokatzen zenean	☐	☐	
. Aurrez beste batek esandakoari buruzko bere desadostasuna edo adostasuna azaldu du	☐	☐	
. Iritziak arrazoitu edo justifikatu ditu	☐	☐	
. Moderatzaileak behartu edo eskatu dionean bakarrik hitz egin du	☐	☐	
. Berak horrela nahi zuelako, bitan baino gehiagotan hartu du hitza	☐	☐	
. Beste norbaitek esandakoari buruzko argibide gehiago eskatu ditu	☐	☐	

BALORAZIOA: ☐oso ondo/asko ☐nahikoa ☐eskas antzean ☐gaizki/gutxi

.....

Elkarrizketarako arauak bete ditu?	BAI	EZ	OHARRAK:
. Besteei hitz egiten utzi die, hizketa-txanda eten edo oztopatu gabe.	☐	☐	
. Hitza modu egokian eskatu dio moderatzaileari (eskua altxatuz edo beste keinu batez, baina besteen hizketaldia oztopatu gabe eta arreta galdu gabe)	☐	☐	
. Moderatzailearen baimenarekin bakarrik hitz egin du	☐	☐	
. Besteek esandakoak (ideiak, iritziak...) errespetatu ditu	☐	☐	
. Besteen adierazpidea (hitz egiteko modua, keinuak...) errespetatu du	☐	☐	

BALORAZIOA: ☐oso ondo/asko ☐nahikoa ☐eskas antzean ☐gaizki/gutxi

.....

Egoki hitz egin du?	BAI	EZ	OHARRAK:
. Gaiarekin zerikusia duten informazioak eta iritziak bakarrik azaldu ditu	☐	☐	
. Informazioak eta iritziak modu ulergarrian adierazi ditu	☐	☐	
. Besteek ondo entzuteko moduan, eta argi eta garbi ahoskatuz hitz egin du	☐	☐	
. Hizkuntza zuzen erabiltzen ahalegindu da eta hitz egiterakoan egindako akats batzuk zuzendu ditu	☐	☐	
. Esan duen zerbait ez dela ondo ulertu iruditu bazaio, saiatu da beste era batera adierazten	☐	☐	
. Keinua, postura eta mugimendu egokiak erabili ditu	☐	☐	

BALORAZIOA: ☐oso ondo/asko ☐nahikoa ☐eskas antzean ☐gaizki/gutxi

.....

47. Kopla txikiak

Lan egiteko era: Bakarka - Binaka - Talde handian

Materiala: Irakurgaiak, 89. or.

Mikel Mendizabalek egindako bertsoak irakurtzeko eta aztertzeko tartetxo bat emango diegu ikasleei. Hona hemen, besteak beste, aztertzea eskatuko dieguna:

- Kopla txikiak irakurri eta ikasleek ulertzen ez dituzten hitzen esanahia hiztegian bilatu.
- Kopla bakoitzaren gaia adierazteko egokiena den hitza, edo hitzak, idatzi. Hitz bakar batez adieraztea hobetsiko dugu, ezinezkoa balitz, bi, bestela hiru... Adibidez: 1. Etorkinak. 2. Musika
- Aurreko jardueran bildutako hitzak erabiliaz nola adieraziko zenuke esaldi bakar baten bidez bertsoaren gaia? Idatz ezazu.
- Badira bi hitz “asko” adjektiboaren sinonimo direnak, zein?
- Zer adierazi nahi du *Basamortuko odola da petrolioa*?

Bukatzean erantzunak elkarrean artean adostu eta jarriko ditugu, eta, gero, denon artean abestuko ditugu koplak. Nahi izanez gero, abestia buruz ikasi eta proiektuan kantatu dezakezue.

48. Kopla txikia lantzen

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Talde handian

Materiala: Lan koadernoak, 34. eta 35. or.

Kopla txikiak nola osatzen diren azaltzen duen testua irakurriko eta argituko dugu, talde handian lan eginez. Ondoren, ikasleek euren koplak osatzen saiatuko dira, bakarka. Bukatzean, berrikusketa- eta zuzenketa-lanak egiten ostean, koplak errezitatuko ditugu.

49. Proiektua gauzatzen

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Liburua, 36. or.

Hainbat dira unitatea landu ahala proiekturako aurreratutako lanak. Orain, lan horiek guztiak biltzeko eta antolatzeko ordua heldu da; beraz, jarrai itzazue liburuko urratsak proiektua burutzeko.

Proiektua amaitu osteko egunean, hartu tarte bat egindakoari buruz hitz egiteko, bakoitzak bere bizipenak eta sentimenduak adierazteko eta egindako lanaren balorazioa egiteko.

50. Bueltako komikia

Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian

Materiala: Liburua, 37. or.

Hasteko, ikasleei tarte bat emango diegu hasierako komikia eta bueltako komikia jarraian irakur dezaten, eta, gero, komikiaren inguruan hitz egiteko. Elkarriazketa horrek Tough-en hizkuntza-funtzioak, edota funtzio jakin bat, lantzeko aukera ematen du. Gogoan izan Tough-en hizkuntza-funtzio horiek guztiak jarduera bakar batean lantzea ezinezkoa dela; beraz, funtzio guztietatik azpifuntzioren bat lantzeko aukera duzue, edota bestela, funtzio bat edo beste aukeratu eta hura sakontzeko. Hona hemen horietako batzuk lantzeko aukerako galderak:

- *Komiki honetan, bueltakoan, Martinen urtebetetze eguna da, baina zein hilabetetan betetzen dituela iruditzen zaizu? Zergatik pentsatzen duzu hori? Eta, zure ustean, zenbat urte bete ditu Martinek? Zergatik pentsatzen duzu hori?*
- *Esperientzien kontaketa: Noiz da zure urtebetetzea? Zure etxeko guztien urtebetetze-egunak gogoratzeko eta aipatzeko gai izango al zinateke? Eta gogoratzen al duzu etxeko bakoitzak zenbat urte dituen?*
- *Normala iruditzen al zaizu Martinek ez ulertzea Kleoren jarrera? Zergatik? Zertan eta zergatik ari da Kleo modu horretan jokatzeko Martinekin? Martin Kleorekin haserretuko balitz, normala irudituko al litzaizuke? Zergatik?*
- *Martinek “betiberandu” deitu dio Kleori. Berdin deitu zieziokeen “Mariberandu”. “Mari” aurrizki (emakumeekin) edo atzizki modura (gizonekin) erabili ahal izatera adierazten duten hainbat izen sor zitezkeela ikasi zenuen. Gogoratzen al duzu baten bat? Aipa eta zerrenda itzazue, gero gelako horma batean idatzi eta erabiltzeko aukera duzuenetan, erabili.*
- *Mei Li gose da eta mahaia janariz bete dago, zergatik esaten dio Maiderrek ezin duela ezer jan? Zer gertatuko litzateke jango balu?*
- *Zergatik esaten dio Maiderrek Xabierri etxea sekula ezin dela teilatutik hasi? Zer esan nahi du esamolde horrek?*
- *Gustuko izan al duzue komikia? Zergatik?*

49. Sintesia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Liburua, 38., 39. eta 40. or.

Sintesiari zuzendutako orrialde hauen helburua da, ikasitakoaren errepasoa egiteaz gain, hainbat alderdiren ebaluatze-tresna gisa erabiltzea. Ikasleak sintesirako orrialde hauek bete aurretik unitatean zehar ikusi eta ikasitakoaren errepasoa egitea aholkatzen dizuegu.

Nola nahi ere, orriotan landutakoaren alderdi batzuk baizik ezin dira errepasatu. Hau da, dramatizazioaren, plastikaren eta aho hizkuntzaren inguruan landu diren edukiak, prozesuan zehar (unitatean zehar dagozkion jarduerak egiterakoan) behatu beharko dituzue, ez baitu zentzu handirik, hainbat prozesu luze azken unean eta behaketa egiteko asmoz berriro ere errepikatzea. Hizkuntza idatziaren inguruko hainbat ekoizpen-lan luzeekin ere gauza bera gertatuko zaigu.

Sintesiaren azken jarduerak irakurketa dramatikoa baloratzeko balio du, beraz, interesgarria litzateke talde handian elkarriazketa sortzea, eurek egindako lana, gogoia, gozamina, eta abar baliostatzeko eta kritika era baikor eta konstruktiboan egiteko.

50. Hemen edo han, gure Txanelan!


Lan egiteko era: Talde handian

Talde handian, bildutako argazkiak antolatu eta haiei dagozkien azalpentxoak idatzi ondoren, gure albumeko hurrengo atala osatuko dugu. Bukatzean, tarte bat hartuko dugu, egindakoa lasai ikusteko eta hartaz gozatzeko.


Eranskinak


Hurrengo orrialdeetan honako osagarri hauek sartu ditugu:

- 15. jardueran aipatzen diren modulazioak
- Musikako lan-koadernoaren gidaliburua





ITHNOL GHRRO 8-8





1602 2002/1 8-8





Musikako lan-koadernoak

4.1 HAIZEZKO MUSIKA TRESNAK

Kudeaketa mota: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.1. fitxa; jardueren CDa, 18. pista

Gu geu, azken ikasturte hauetan haizezko familiako musika-tresna bat eskuetan hartu eta aurrerapen handiak egiten ari gara. Bai, jauna, musika-tresna hori txirula da.

Familia honetako gainerako tresnek ezaugarri bera dute: soinua aterarazteko putz egin behar dugu. Batzuekin haize gutxi jaurtitzea nahikoa izango da (txirula, okarina). Beste batzuekin, ordea, birika sendoak eduki beharko dira (tronpeta, tuba).

Oso antzinakoak dira horrelako zenbait tresna. Australian bertan, duela 40.000 urte erabiltzen zen tresna oraindik ere egin egiten da. Euskal Herrian bertan, Izturitzeko leizean abere baten hezurarekin egindako tresna bat aurkitu zuten. Hiru zulo ditu eta antzinako txistua dela uste da. Duela 20.000 urte erabiltzen zela uste dute adituek.

CDan, sei musika tresna grabatu ditugu. Baina kontuz, oraingoan ere tranpatxo bat ipini dugu. Denak, bat izan ezik, haizezko musika-tresnen familiakoak dira.

Oharra: egokia litzateke haizezko musika-tresnak zuzenean ezagutzea. Horretarako, orkestra baten kontzertuko irudiak ikus daitezke, eta, ahal izanez gero, bakoitzaren ezaugarriak ikusi, gainetik bada ere.

4.2 LAUKO NEURRIA

Kudeaketa mota: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.2. fitxa

Orain artean bi eta hiru taupadako konpasak landu ditugu. Gure ikaskuntzan aurrera egin behar eta gaurkoan, lau taupadako neurria duten konpasak ikusten hasiko gara. Lauko neurria idazterakoan, SOLen ikurraren eskuin aldean "4" bat eta bere azpi aldean beste lau bat edo beltz bat idazten da. Zenbait tokitan "C" batez ere adierazten da.

Fitxa honetako lehen lana oso erraza izango da: irudi geometrikoak, ilargiak eta zelula erritmikoak lauko taldeetan bildu beharko dira.

Bigarrenean, berriz, batuketak egin beharko dira: lauko emaitzara iristean, berriro biribildu. Eta azkeneko ariketan, horrek ere matematikarekin zer ikusi handia du, zelula bakoitzak duen taupada kopurua kontuan hartuta, lauko emaitza ematen duten taldeetan biltzen joango gara.

4.3 BIRIBILA

Kudeaketa mota: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 4.3. fitxa

Zelula erritmiko berria dugu biribila. Bera da denetan iraupen luzeena duena. Lau taupadako iraupena, hain zuzen ere.

Izenak dioen bezala, forma biribila du. Zuria bezala adierazten da, baina makilatxorik gabe. Zenbait ariketa jarri ditugu fitxa honetan biribilaren erabileraz eta iraupenaz jabetzeko.

Orain arte ikusitako zelula erritmikoen errepasoa egin dezakegu:

Beltza: θ = taupada bat

Kortxeak: $\varepsilon \varepsilon$ = bakoitzak taupada erdia

Zuria: η = bi taupada

Biribila: ω = lau taupada

Biko neurrian konpasa betetzeko bi taupaden balioa eduki behar zuen konpas osoak. Horretarako, hainbat konbinazio egiten genituen. Baina zuri bat (η) jartzen bagenuen, konpasa beterik gelditzen zen, izan ere, zuriak bi taupada balio baititu.

Lauko neurrian gauza bera gertatzen da: konbinazioak eginez osatuko dugu konpasa, baina betiere lauko balioa osatu arte. Biribil bat (ω) jartzen badugu, ez dago beste inorentzat lekurik, biribilak lau taupadaren balioa duelako.

Esaten genuen bai: musikak harreman estua du matematikarekin!

4.4 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Kudeaketa mota: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 4.4. fitxa; jardueren CDa, 19. pista

Yomika

Lauko neurrian idatzitako abestia dugu honako hau. Bi biribil agertzen zaizkigu. Bakoitza pentagramaren amaieran. Agian, txirula jotzerakoan, norbaiti luze samarra egingo zaio lau taupadako iraupena duen nota bat jotzea, haizerik gabe gelditzea gerta daiteke. Garrantzitsua da musikako klasean ere arnasketa

ariketak egitea, haizerik gabe ez gelditzeko. Baina kantatzeko ere ezinbestekoa da arnasa ongi hartzea.

Arnasaren inguruan jolas bat egitea proposatzen dizuegu. Arnasa hartzen dugunean, gure birikak bete egiten dira, baina ez dakigu zenbat haize kabitzen den gure biriketan. Horren kontzientzia izan asmoz, hartzen dugun arnas kantitatea ez baita ikusten, puxika bana emango diegu ikasleei. Ibil daitezela puztu eta hustu pixka batean, puxika bigundu dadin.

Puxika eskuetan dutela arnasa hartzeko eskatuko diegu. Saia daitezela bularraldea bakarrik ez betetzen, sabeleraino iritsi behar du hartzen dugun haizeak. Bota dezatela ahotik "fukada" batean den-dena hustu arte. Berriro hartu eta "fukada" txikietan bota dezatela dena. Berriro ere hartu eta "fukada" mantso-mantso batean bota dezatela. Berriro ere hartu eta oraindik mantsoago bota dezatela. Eta horrela bost edo sei aldiz ariketa bakoitza.

Orain, gogoratu puxika eskuetan dutela, sakon-sakon hartuko dugu arnasa eta, lehen bezala, kanpora bota beharrean, puxikara botako dugu "fukada" mantso, lasai eta bakar batean. Horra hor gure biriketan kabituko zaigun arnas kantitatea zenbatekoa den ikusteko aukera.

4.5 ERRITMO DIKTAKETA ETA MELODIA DIKTAKETA

Kudeaketa mota: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.5. fitxa; jardueren CDa, 20 . pista

Egokiago iruditzen zaigu mota honetako ariketak irakasleak berak aurkeztea eta zuzentzea. CDa baino hurbilagoko tresna da irakaslea. Abiadura molda dezake, baita nahi hainbat aldiz errepikatu ere, eta, nola ez, konbinaketa piloa asma dezake.

Lehenik, erritmoa soilik entzungo da eta erabiliko ditugun zelula erritmikoak kortxeak, beltzak eta zuriak bakarrik izango dira. Biko neurrian idatzitako adibideak direnez, biribilik ez zaigu agertuko.

Jarraian, aurreko erritmoa kontuan harturik noski, bi notaz osaturiko melodia entzungo da eta SOL eta LA notak bakarrik erabiliko ditugu. Laguntze aldera, lehenengo konpasa, beti, SOL notaz osatuta egongo da. Aldaketak, bigarren konpasean iritsiko dira. Erraza, ezta?

4.6 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Kudeaketa mota: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.6. fitxa; jardueren CDa, 21. pista

Alaitasunaren oda (Beethoven)

Beethoven-ek idatzitako Bederatzigarren Sinfoniako musika zatirik ezagunenetakoa da orain aurkezten dizugun hau.

Lauko neurrian idatzita dago eta perkusioarentzat ere partitura gehitu dugu. Lauko neurria osatzen duen zelula erritmikoa biribila izanik, bakar bat ere ez dago. Beste zelulekin osatuta daude konpas guztiak.

Ohiko prozedurari jarraituko diogu abestia lantzerakoan:

- Erritmoa irakurri eta markatu
- Hitzak erritmikoki irakurri
- Solfeatu
- Abestu
- Txirula jo

Perkusioari dagokionez, hirugarren unitatean egin genuen era honetako ariketa bat. Orduan esandakoa gogoratuko dugu:

Bi lerro gehitu dizkiogu. Bata klabeena da, eta bestea triangeluena, bi tresna horiek jo behar dituzten ikasleentzat dira. Ez dira une berean jo behar bi tresnak. Batzuk lanean ari diren bitartean besteak gelditu eta isilik egongo dira. Klabeak lehen hiru konpasak jotzen ari diren bitartean, triangeluak isilik egongo dira. Horregatik, isilik egon eta gainera txanda noiz iritsiko zain, partiturari jarraitu beharko diotenez, isiltasunaren ikurrak jarri ditugu. Baina ez nolanahikoak: zuriaren balioa duten isiltasunaren ikurrak dira.

Orkestra osatzeko, jakina, lanak banatu egin beharko ditugu: talde bat perkusioaz arduratzen den bitartean, besteak kantuari eta txirula jotzeari ekingo dio.

Ikasle guztiek perkusioa probatzea komeni da. Guztiak perkusio-jotzaile izatea, alegia, eta ez espezialistak sortzea. Espezialistak izatekotan denok izango gara. Horrela, triangelu-jotzaile bat falta bada, edonork hartu ahal izango du haren postua.

Oharra: Nahiz eta lan-koadernoan era honetako ariketa gutxi azaldu, dagoeneko konturatuko zineten zein erraza den kanta bati perkusioz laguntzea. Urteetako esperientzia duzue eta adibide piloa jar dezakezue. Egia esan, ikasleei asko gustatzen zaie horrelako lanak egitea.

Kanta hau aitzakia hartuta, Beethoven-en biografiari buruzko zertzelada batzuk emateko aukera egokia da.

Galdetu ikasleei ia ezagutzen duten. Zer dakiten hari buruz. Taldeak egin eta informazioa bila dezatela. Denon artean bildutakoarekin idazlan polit bat egin dezakegu.

Nahi izanez gero, eskura dezakezue bideo hau: *Musikaren historia: Klasizismoa*. Hamabost minututan Beethovenen biografia eskaintzen dizue, hura bizi izan zen lekuetako irudiekin. Donostiako Orfeoia eta Euskadi Orkestraren emanaldi baten laburpen bat ere aurkituko dituzue bertan.

4.7 PUXIKAK

Kudeaketa mota: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.7. fitxa

Puxika bakoitzak hainbat nota ditu barnean idatzirik. Horien batuketa egin beharko da lehenik. Lauko emaitza ematen duten puxiken notak biribilaren azpialdeko laukietan sartu beharko dira.

Hiruko emaitza eskaintzen dituztenak, berriz, punttua duen zuriaren laukietan. Eta azkenik, biko emaitza dutenak zuriaren ondora.

Laguntza gisa, puxikak, batuketaren arabera, margo ezberdinez apaintzea proposa daiteke. Adibidez: laukoak urdinez, hirukoak gorritz eta bikoak berdez.

Ariketa erraza, arreta landu nahi da fitxa honetan.

4.8 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Kudeaketa mota: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.8. fitxa; jardueren CDa, 22. pista

Mundu berria (Dvorak)

Izen bera duen Sinfoniako pasarterik ezagunena da partitura honetan agertzen zaiguna.

Do-ren eskalako ia nota guztiek osatzen dute melodia. FA bakarrik falta da. Hasi ikasleei galdezka:

- Zer neurritan idatzitako partitura da?
- Zenbat konpas ditu?
- Ba al dago errepikatzen den konpasik?

- Zenbat kortxea daude?
- Zenbat zuri?
- Zenbat beltz?
- Zenbat biribil?
- Zer isilune mota daude?
- Zenbat SOL?
- Zenbat MI?
- Zenbat FA?
- Zenbat...?
- Ohar berezirik ba al dago? (DC eta Fine)
- ...

Perkusioarentzat ere partitura ipini dugu, baina triangeluaren marra osatzea ahaztu egin zaigu. Arkatza hartu eta ahalik txukunen osatu beharko dute ikasleek. Ez dute guztiek berdin idatziko; beraz, pazientzia hartu eta denei eman aukera berea erakuts dezaten.

Kanta hau dela eta beste musikari handi bati buruzko informazioa biltzeko aukera paregabea daukagu: Dvorak. Beethovenekin egin dugun antzera egin dezakegu. Nahi izanez gero, eskura dezakezue bideo hau: *Musikaren historia: Norvegia eta Txekiako musika nazionalista*. Hamabost minututan Dvorak-en biografia kontatzen dizue, hura bizi izan zen lekuetako irudiekin. Mundu Berriaren Sinfonia New Yorken egon zenean idatzi zuen.

LAN KOADERNOTIK APARTEKO ABESTIA

AMALUR

Kudeaketa mota: Talde handian

Materiala: Jardueren CDa, 23 . pista

Dantza.

- Melodiaren azpiegitura tonala: Mi M


- Erritmoaren urratsetan:

Dantzaldia: Bi lerrotan bilduz, eta eskuetan makiltxoak dituztela.

A ALDIAN



B ALDIAN




① Mi M La M Si 7 Mi M La M Si 7
1 Oi - hu - ak i - bai er - tze - tan, su - te - ak men - di - gai - ne - tan,

Mi M La M Si 7 Mi M La M Mi M
5 ez - pa - tak bi es - ku - e - tan er - nai gau - de oi - ha - ne - tan.

② Mi M La M Mi M La M Si 7
9 Al - ta - biz - kar, Be - o - ti - bar, I - bai - ne - ta e - ta A - ma - iur.

Mi 7 La M Mi M Si 7 [D.C.]
13 Zaz - pi Eus - ka - le - rri - e - tan en - tzu - da zu - re dei - a, A - MA - LUR.



AMALUR

Oihuak ibai ertzetan,
suteak mendi gainetan,
ezpatak bi eskuetan,
ernai gaude oihanetan. (bis)
Altabizkar, Beotibar,
Ibaineta eta Amaiur.
Zazpi Euskalerrietan entzun da
zure deia, AMALUR.